

JAIZKIBEL DEFENDITZEKO MOBILIZAZIOA EGINGO DA OTSAILAREN 8AN

Bilera deitu dute datorren urtarrilaren 29an ostegunarekin, Lezo, Superportuaren egitasmoak kalteturiko itsaslabarretan pista eraiki eta zundaketa geoteknikoak egiteko asmoz Portuko Agintaritzak agindu dituen lan erasokorrak arbuiaitzeko helburuarekin erantzun kolektiboari ekiteko

Otsailaren 8an, igandearekin, mobilizazioa egingo da Jaizkibelen Pasaiaiko Superportuaren egitasmoaren aurka eta inguruneari kalte nabarmenak eraginda Portuko Agintaritzak berehala kalteturiko itsaslabarretan zundaketa-lan geoteknikoak egin ahal izateko bertan hainbat pista eraikitzeke duen asmoaren kontra oposizioa adierazteko. Hori dela eta, Superportuaren Aurkako Taldeak "JAIZKIBEL ARRISKUTAN! ZUNDAKETA TXIKITZAILERIK EZ!" lemapean deitu duen mobilizazio egun horretan, goizetik 3 orduko mendi ibilaldia egingo da Jaizkibelgo Gaztarrotz, Luberri, Akerregi, Azabartzaren gainaldea, Itzalarri eta Zunbillondoko parajeetan pista eraiki eta zundaketa-kanpaina geoteknikoa egiteko asmoz agindu dituzten lanen eragin larria bertatik bertara salatzeke. Goizeko 9'30etan abiatuko den mendi martxa horretan parte hartzeko erraztasunak emateko, ibilaldiaren abiapuntua Lezo/Pasaia Donibanetik Jaizkibelera igotzen den errepideko 4'500 kilometroan dagoen "Kantina"n izango da, eta bertara igotzeko autobusa jarriko da, goizeko 9etan, Erreteriatik irten (RENFE tren geltokian) eta Lezo (autobus geltokian) eta Donibanen (termikaren ondoko bidegurutzean) geldiuneak egingo dituena. Ibilaldia amaitutakoan, eguerdiko ordu 1etan kontzentrazioa eta batzar informatiboa egingo dira "Kantina"n, Superportuaren ondorioz itsasertzak pairatuko lukeen hondamendi beldurgarria dela eta egitasmo horren kontrako oposizioa adierazteko eta mobilizazio honi segida emateko egingo diren hurrengo ekimenen berri eman eta iritziak trukatzeko. Hori dagokionean, bilera batera dei egiten diegu gainera interesa duten pertsona eta talde guztiei urtarrilaren 29an, ostegunarekin, arratsaldeko 7'30etan Lezoko Txerrimuñon, Portuko Agintaritzak pista eraiki eta zundaketa geoteknikoak egin asmoz Superportuarene egitasmoak kalteturiko itsaslabarretan agindu dituen lan erasokorrak arbuiaitzeko helburuarekin erantzun kolektiboari ekiteko eta protesta ekintzak prestatzeko.

Hortaz, jende guztia otsailaren 8an Jaizkibelera etortzeko animatu nahi dugu, bai kalteturiko eremura egingo den ibilaldian parte hartuz eta bai eguerdiko ordu 1etan "Kantina"n egingo diren kontzentrazioa eta batzarrera bilduz. Eta ekimen honen inguruan Lezo datorren osteguneari hilaren 29an egingo den bilerara ere dei egiten dugu, bertan materiala banatu (kartelak, panfletoak) eta nahi duenak informazio gehiago eskuratu ahal izango baitu bestalde.

"Jaizkibelen sarbideak eraiki eta bertan zundaketak egiteko" Portuko Agintaritzak Pasaiaiko Udaletxean aurkeztu duen proiektuak Jaizkibelgo itsaslabarretako 7 puntutan zundaketa-lan geoteknikoak egin ahal izateko gutxi gora-behera 5Km pista berri eraikitzea aurrakusten du kostaldeko Tanbo eta Gaztarrotz muturren arteko eremuan. Eraiki nahi dituzten pista horiek ingurunean itzulirik gabeko kalte nabarmenak eragingo lituzketela salatzen dugu, eta kanpaina geotekniko horren helburua, bestalde, itsaslabarretan 90 eta 155 metro bitarteko sakonera duten zundaketa-lanen bidez, Jaizkibelen *"Kanpo Portuaren Aurreproiektua"*n aurrakusten diren 200 metro altuerarainoko harrobien prestaketarako datuak ematea dela salatu. Izan ere, interes geologiko gorena aitortzen zaion itsasertzeko gune honetan, Superportuaren eraikuntzak 54 milioi metro kubiko harkaitz-labar erazteza eskatzen du -egin kontu: oinarrian futbol zelai baten azalera (hektarea bat) eta altueran 5.400 metro hartuko lukeen kubo erraldoi baten bolumena da hori-, kostalde osoa 3 kilometrotan txikituta eta itsaslabarren frontea bere gailurreraino erabat suntsituta, era honetan itsasoan portu-zabalgunearen betelanak egiteko. Gainera, Aurreproiektuak ohartarazten duenez, *"proiektuaren bideragarritasuna neurri handi batean diren litologiak eraikuntza lanetan erabiltzeko aukeraren menpe dago"*, eta egitasmoaren dikeak eraiki eta hormigoia fabrikatzeko beste 6 milioi metro kubiko kararri atara behar dela zenbatu ondoren, *"kopuru horien eskuragarritasuna, baita 50 kilometroko inguruan dauden harrobi guztiak ustiatuta ere, zalantzarria da"* ohartarazten du. Hori dela eta, *"ezinbestekotzat jotzen du zundaketa-kanpaina bat egitea"*, Superportuaren obrak harri-mota horrekin ere hornitu ahal izateko Jaizkibelen *"harrobi berri bat irekitzeko hortik hurbil legokeen kokapen posiblea zehazteko"*.

Alabaina, zundaketa puntuen kokapenera iristeko kasu askotan dauden zailtasun handiak direla eta, Portuko Agintaritzak kanpaina geoteknikoa gauzatzeko 2002 urteko ekainaz geroztik *"zailtasunak eta zundaketa-lanak bertan egiteko ezintasunean"* dabilela dio, *"sarbiderik ezean makinak zundaketa-puntuetara iritsi ezinean egonik"* eta urte hartako abuztuan legez kanpo hasitako lanak berehala bertan behera utzi behar izan zituelako orduko Udalaren aginduz. Hartara, sarbideak eraikitzeke plan berezi bat dauka orain, eta hainbat pista eraikitzeke berehala hasi nahi dituen lan horiek interes naturalistiko handi eta "Babes Berezi"ko gune bezala izendatuta dagoen eremu honetan -itsaslabar, harkaitz eta hegal oso maldatsuak dituzten ibar estu multzo batek osatzen dute- eragingo luketen itzulirik gabeko kalte nabarmena salatzen dugu. Ondorio kaltegarri garratzitsuenen artean, *"Sarbideak egiteko"* proiektuak berak aitortzen du honako kalte hauek eragingo direla, besteak beste:

- Higadura prozesuen agerpena eta mendi-magalen ezegonkortasun arriskuen areagotzea: *"Aipagarria da ikerketa eremuko magalek garrantzi handiko ezegonkortasun arazoak dituztela"*.

- Habitataren kalitatearen galera.

- Interes botanikoa duten landare-multzoen suntsiketa, *"harkaiztegi silizeoetako landaretza gune interesgarri batean, interes komunitarioko habitat naturala dena, eragingo den kaltea"* nabarmenduz: *"Jaizkibelgo landaretzak alterazioa jasan arren, ikerketa eremuak interes botaniko handia du, ugariak baitira bertan aurkitzen diren espezie oso intersegarriak, Armeria euscadiensis kasu"*.

- Hegaztientzako interesa duten inguruneei eta biotopoaren egokitasunari eragindako kalteak: *"Ikuspegi ornitofaunistikotik ikerketa eremuak dituen hainbat ezaugarri oso gune garrantzitsua bihurtzen dute textuinguru erregionalean"*, bertan Euskal Herriko Espezie Mehatxatuen Katalogoan jasotako hainbat espezie aurkitzen baitira, hala nola Harkaitz-zozoa, Lepitzulia, Zata arrunta, Belatz handia, Zozo bakartia eta Kaio iluna.

Bestalde, kalteturiko eremua, Superportua inoiz egingo balitz azken batean guztiz suntsitutko litzatekeena, *"Babes Bereziko Gune"* gisa identifikatu eta *"Jaizkibelgo Itsaslabarrak eta Ulia-Kostaldekoko Barrutia"* izendapenarekin *"Interes Geologiko Guneen Zerrendan"* jasotzen den eremu honek, *"interes maila nazionaleko, iriskortasun erregularra eta hauskortasun handia, baita interes zientifiko, dibulgatibo eta didaktikoa ere"* dituela gaineratzen du... Eta zinismo osoarekin hitze egiten ari bailitzan, honako hau ere badio: *"Jaizkibel mendia Eusko Jaurlaritzak Interes Komunitarioko Naturaguneen (LIC) zerrendan sartzeko proposatu duen espazio bat da, eta Kudeaketa Plan bat idatzi ondoren, Natura 2000 Sarea osatzen duten Babes bereziko Guneen (ZEC) artean sartuko da, beraz"*.

Gogor salatu nahi dugu, ordea, ekintzetan Jaizkibelgo Itsasertza desbabesten ari direla, Superportuaren bultzatzaileen interesetara makurtuta. Eta *"Sarbidetako egiteko"* proiektuak proposatzen dituen *"neurri korrektoreak"*, *"Jaizkibelgo ohizko fisioomia aldatzeko den epea ahalik eta gehien laburtzeko"* eta *"lanak bukatzerakoan obrak eragindako ingurua, ahal den neurrian, hasieran zegoen bezala uzteko"* egiten dituen promesak bezalaxe, ingurunearekiko ekintza erasokor bat zuzentzeko itxurakeria baino ez direla bistan da: benetan, Jaizkibelgo eremu babestuak proiektuaren garapenerako suposatzen dituen *"ingurugiro mugapen eta traben"* ezabapena inposatzen ari da, azken batean egun indarrean dauden lurraldea antolatzeko eta natura babesteko planak interes ekonomikoak agertuz gero ezereztu eta hutsera bihurtzen direla erakutsita.


Lan horiek egiteko, obretako dumper kamioiak, konpaktazio makina bat eta beldar-gurpil gaineko indusmakina misto bat erabiliko direla aurrakusten du proiektuak, Erentzin-Gatzarrotzera doan pista (Hondarribitik Jaizkibelgo errepedean hasten da hori) eta tiro-poligonora doana *"egokitze"* eta itsaslabarren inguruan gutxi gora-behera 5Km pista berri eraikitzeko: azken hauek *"desnibel handiak gainditu beharko dituzte, eta beste biderik inondik ez dagoenez, pista berri horiek zig-zag-etan taxutuko dira, malden pendizeak gutxitzeko"* eta *"gurpil gaineko ibilgailuetan ahalik eta gehien hurbildu"* ondoren makinak zundaketa-puntuetara iritsi ahal izateko. Lan horien aurrekontua 189 mila eurokoa da (31 milioi pezeta) eta proiektuak obrak egiteko bi hilabeteko epea aurrakusten du, *"kanpaina geoteknikoaren iraupena zenbatekoa izango den argitu bitartean bederen"*.

Superportuaren Aurkako Taldeak askotan azaldu ditu ingurugiroaren babesari inolako arretarik ematen ez dioten azpiegitura-lan erraldoien auzia berriro gordintasun osoarekin planteatzen duen makro-proiektu honen aurka aritzeko ditugun arrazoiak. Superportua murturreraino eramandako naturaren esplotazioan eta gizarte-premien manipulazio nabarmen batean oinarritzen da, mugarik gabeko hazkunderaren logika suntsitzaile eta jasanekin eutsi nahi diona. Gaur egungo portuko gunearen hiri-eraberritze asmoei gagozkiela, proiektuaren aldekatasuna lortzeko aditza eman ohi dutena, horiek ez lukete superportuaren logikari jarraiki inteses sozialeko helburuekin inongo zerikusirik izango, eta operazio urbanistiko espekulatzaileak egiteko parada emango lukete, gerora biztanleriaren beraren ezaugarrietan eragingo luketen hirigintza alorreko ekintzak bultzatzeko. Nolanahi dela, superportuaren aurka aritzeak bizi-baldintzen hobekuntzari uko egitea dakarrenik gogor ukatzen dugu: bizi-baldintza horien hobekuntza, arazoak konpontzea eta premiak asetzea, era ekitatiboan eta gure ingurune ekologikoarekiko egokitasunean egitea bilatzen dugu ordea. Izan ere, suntsiketa ekologikoarekin batera bizi-baldintza sozialak ere okertzen direla, gaur egunean, nork uka? Guzti horrek Jaizkibelgo itsasertza babestea eta Kanpo Portua egiteko bere butzatzaileek dituzten interes ekonomiko desarrollista hutsak arbuatzea konpromiso alderaezina bihurtzen du.

Horren aurrean kostaldea babesteko deia luzatu nahi diegu herritarrei, denon esku baitago eraso larri hau geldiaraztea. Era berean, otsailaren 8ko mobilizazioaren aldarrikapenarekin bat egiten duten talde eta elkarteengana heldu nahi dugu, Jaizkibelen defentsaren alde bere atxikimendua adieraz dezaten eskatzeko eta Superportuaren egitasmoak arrazoimenari entzungor eginez aurrera jarraitzen duen egungo egoera alarmagarria salatu dezaten eskatzeko.

Zuen parte-hartzea espero dugu beraz eta deialdi honen berri zuen inguruan ematea eskatzen dizuegu. Proposamenik egin nahi baduzue ere, harremanetan jar zaitezte:

Jaizkibelgo Superportuaren Aurkako Taldea
(Tlfnoa:660847906)



KRONOLOGIA

- 🕷 **1974:** Frankon garaietan ikerketa burutu zuten kanpo kia eraikitzeke baina atzera bota zuten.
- 🕷 **1999 - 4 - 23:** Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak "biabilitate ikerketa" enkargatu zuen.
- 🕷 **2000 - 2 - 3:** Pasaia kanpo kaiaren proiektua aurkezten dute publikoki.
- 🕷 **2000 - 3 - 1:** Pasaialdeko 64 bizilagunek salaketa aurkezten dute, lurralde antolaketan eta ekologian proiektu honek eragingo lituzkeen kalteengatik.
- 🕷 **2000 - uda:** Informazio zabalketa: erakusketak, muralak, iritzi trukaketa, diru bilketak, ...
- 🕷 **2001 - 4:** Eskualdeko azpiegitura erraldioen aurkako AKANPADA Gaintzurizketan (mendi marxa, kalejira errebindikatioa Oreretatik Lezora. Ertzntzak kargatu, zaurituak eta atxilotuak).
- 🕷 **2002ko uda:** Portu agintaritzak zundaketak egiteko baimena eskatu Pasaia Udalari eta honen ezezkoa jaso ondoren baimenik gabe hasten dira zundaketekin (Abuztua dela aprobetxatuz). Udalak zundaketak geldiarazi.
- 🕷 **2002 - 9:** Mamuen protesta Portu Agintaritzako egoitzaren teilatuan proiektuaren asmo ilunak salatzearen.
- 🕷 **2002 - 11:** "Jaizkibel Bizirik" eguna Pasai Antxon.(itsasora irteera, eztabaidak, antzerkia, ...). "Hemen goitik" ipuinaren aurkezpena.
- 🕷 **2003 - 1:** Portu Agintaritzak Superportuaren aurreproiektua aurkezten du. 2.000 bizilagunen sinadurak aurkezten dira E. Jauriaritzako Ingurumen sailean, Jaizkibel bere osotasunean babestearen alde. (Mamua berriro azaltzen dira protestan).
- 🕷 **2003 - 2:** Jaizkibelgo kostaldera mendi marxa Pasai Donibanetik Azabartzaraino. (100 partehartzaile).
- 🕷 **2003 - 3:** Portu Agintaritzak "ingurugiro eraginaren txostena" aurkezten du proiektuaren inpaktoa "minimo" bezala katalogatuz...

JAIKIBELGO SUPERPORTURIK

EZ



Jaizkibelgo superportua edo Pasaia Kanpo kaia deiturikoa orain arte Gipuzkoan proiektaturiko obra erraldoi eta beldurgarriena da, bere aurrekontu eta dimentsioak adierazten duten bezala.

Jaizkibelgo kostaldea, berriz, izugarritzko altxorak gordetzen dituen itsaslabarrez osatua dago.

Landare, fauna, geologi, lurrazpiko ura nahiz paisai aldetik balore ukaezin eta babestuak ditu. Guzti hauek, ordea proiektu honen bultzatzaileen interes ekonomikoak direla eta arriskuan daude.

Honen aurrean kostaldea babesteko deia luzatu nahi diegu herritar nahiz erakundeei, gure esku bait dago eraso larri hau geldiaraztea.

TXIKIZORIK EZ. JAIZKIBEL BIZIRIK!!!